

OLERKIA

Gorputzak diost...

ESKUEN SUSTRAIAK

Oier Guillan
Susa, 2009
128 orrialde. 14,50 euro

Karmele IGARTUA

Nor naizen. Bizialdia da liburuko ibilbidea, mugimendu zirkularrean, bizialdia, zortzi ataletan barrena.

Memoria deitu eta zentzumenetan bidaide egin gaitu Oier Gillanek bere eskuen sustraiaetan. Memoria, bai, eskuena, eta horiekin batera, gorputzarena. Hemendik atzera, seneraino poliki hurbilarazi, eta buelta egin dugu, berreraikitzen garena, oraina arteraino.

Bada gure literaturan eskuen bizi indarra nabarmendu nahi izan duen idazlerik, horren adibide da Juan Mari Lekuonaren "esku3" poema, non bizi guziaz gorputzen duen eskuen indarrean:

«Dena –eta bizia ere bai– eskuek amore ematean amaitzen da».

Asatu beharreko korapiloa biluzik dakusagu hasierako 'paperezko baratzean', ideiak jauzika, alderrai batzuetan, eta gorputza, ataletan, dena lotu gabe (ez aske). "Gernika" gogora ekarri dit nahasmenak. Bukaerarako berriz, ordena sosegatu bat irakurri dut 'Golde lurretan' eta gorputz atalok batzuk besteekin dantzan. Galderak hautatuz, erantzunak antzeman.

Poesiaz poesia, nonahi dira sentitu egiten diren ferekak, zalantzan jartzen gaituzten zalantzak eta erremi gustuko minak edo larruan igartzen diren lagunen oinaze-



ak, Picassoren lepo erazuzietan bezala. Errealitate gordina eta esaten hain zailak diren barrukotasunak batera datoz poemetan barrura egin nahi izanez gero, guztia irudikagarri, ukigarri. Barreneko ahotsak zirika egiten digute edukietan sakondu ahala. Eta errebeldia gazte batek ahots goran esanarazten digu ez gaudela konforme!

"Gernika" eskuen sustraiaetan. Picassoren koadroan gizakia eta arima gorputzen badira minetan, haustura eta hondamendia sentitzen badira gorputz zatikatuetan, Oier Gillanen eskuen sustraiaetan gizakia eraikitze prozesu batean igartzen da gorputz ataletan.

"Gernika" hartan, garrasia entzuten da

gorputz atal sakabanatuetan, heriotzaren zantzuak denean, odola eta bateratzaile ez den ezer.

Herioa da hura.

"Eskuen sustraia" honetan, gorputz atalak eta sentimenduak uztartze bidean, usainak, koloreak eta testurak igartzen ditugu eta barneko metafora gorputza bera da, biziaren seinale.

Biziari egindako ereserkia da hau.

Gernikatik Eskuen sustraiaetara sunstitakotik jaiotzerainoko bidea egiteko aukera bakana dago, egitea merezi duen horietako bat.

Ez dakit poesiaren helburua irakurleari poetak sentitzen duena sentiaraztea den ala irakurleari hazi bat eskaini eta handik abiatuta arakatzeko gura bat piztea, barne munduetan ari baikara ari garenez, eta edozein dela ere poeta idaztera eraman duen estimulua, gertakizuna edo bizipeña, hori poetaren barnean bizi eta iragazi ondoren bakarrik eskaini diezaiotke poetak balizko irakurleari; baden arren beste poesia efektuzaleago bat ere, gaur egun idazten den poesiaren artean, azalean gertatzen dena, deskribapenetan; aseptiko samarra dena, idazlearen inplikazio gabekoa. Eta guztia da irakurgarri, eta dena ei da poesia.

Baina Oier Gillan harantzago doan poeta horietakoa da, gure muinak ukitzera datorrena eta hautua egiten du aukeretan eta egia sentitzen da bere esanetan.

Argi dago bere konpromisoa idazten duenarekiko eta horrexegatik benetakoa da eskaintzen diguna.

Gorputzak diost.



Mikel IBARGUREN

Camus, bere bakardadean

Zortzi urteko alabak triste zegoenez galdetu zion aitari. «Ez, bakarrik nago» ihardetsi zion, itsasoan hazitako idazle aljeriarrak. Ez dakit panteoira eramango duten arrotza, baina Sisiforen mitotik (absurdutik) Prometeoren mitora (erreboltara) egindako ibilbide literario guztian ideologia zapaltzaile orenen aurka borrokatu zen gizon hura berreskuratu nahi dutela argi dago. Ideologia horiek guztiak –totalitaristak zein inperialistak– arbuizteagatik etorri zen, hain justu ere, Sartre eta bere taldekideekiko haustura. Idazle engaiatua ez ezik, editore, filosofo, politikari eta kazetaria ere izan zen. Gauza guztien gainetik, ordea, bere garaiko gizona izan zela esan daiteke. Alde bateko nahiz besteak beste zaunkei muzin egin nahirik, gizaki izaten saiatu nahi zuen, besterik gabe.

Giza existentzia absurdua zen beretzat, eta absurdu horren kontzientzia zuen gizakiak. Imajina dezagun Sisifo harria jasotzen. Ezinean. Sufritzen. Harria maldan beheara abiatzen den une laburrean baino ez du arnasa hartzen. Momentu horretan baino ez da aske sentitzen eta Camusek zoriontsu dakusa Sisifo. Alegia, absurdua izan arren, merezi du bizitzen jarraitzea. Merezi du harriari eustea. Hortik abiatuta doa bizitzaren zentzuaren bila, existentzialista izan gabe, giza-duintasunaren alde, erreboltatzeko indarra barneraturik. Ukazioaren aurka ahotsa altxatuz beti.

«Errebelatzen naiz, beraz banaiz» izan liteke, laburbilduz, Camusen pentsamendua. Eta 50 urte bete diren arren bere pentsamenduak bizirik dirau gaur egun ere. Prentsa librea ona edo txarra izan litekeela zioen, baina askatasunik gabe txarra baino ezin litekeela izan. Bakoitzari berea.

Paris ondoko errepidean zihoala hil zen absurduaren filosofoa; helas, bidean zegoen arbola bakarra jo ondoren. Berak esango lukeen legez, auto istripu absurdu batean.

KALERATU BERRIAK



LA OTRA CARA DEL SUEÑO NORTEAMERICANO

ÁNGELES DERROTADOS
Denis Johnson
Anagrama, 2009
264 páginas. 17 euros


Una historia de perdedores, una pareja de poéticos Bonnie y Clyde de hoy. Bill y Jamie son un par de guñapos maltratados por una sociedad que aplasta a los que no soportan las tensiones de la vida moderna; dos seres a la deriva en una novela cuyo tema es la imposibilidad de ser inocentes en la Norteamérica actual.



EXILIO, HAMBRE, REPRESIÓN

EL SILENCIO DE LAS HAYAS
Mikel Alvira
Ttarttalo, 2009
392 páginas. 22 euros

Primera mitad del siglo XX, Nafarroa, Pirineos, muy cerca de la frontera. Sorogibel es una casa solariega en la que vive una pareja con sus hijos. Allí les sorprenderá el advenimiento de la República y la posterior guerra civil, cuyas consecuencias no les serán ajenas. Las hayas de Sorogibel cobijarán los secretos de sus moradores.



MÁS DE LA BIBLIOTECA DARWIN

LA EXPRESIÓN DE LAS EMOCIONES
Charles Darwin
Laetoli, 2009
376 páginas. 22 euros

Dentro de su colección Biblioteca Darwin, la editorial navarra acaba de publicar dos nuevos volúmenes: "La expresión de las emociones", un tratado sobre las principales acciones expresivas en el ser humano y otros animales; y "La forma de las flores", quizás la obra más desconocida e ignorada del científico inglés.



RELATOS PÓSTUMOS

LAÚD Y CICATRICES
Danilo Kis
Acantilado, 2009
128 páginas. 15 euros

Relatos póstumos de Danilo Kis (Subótica, Serbia, 1935 - París, 1989), descubiertos y recopilados a partir de manuscritos inéditos escritos entre 1980 y 1986. Personajes perdidos, marcados a hierro, olvidados o deseosos de olvidar, tocados por la poética de la narrativa de Kis, que roza los límites de lo intangible.